


langileen alde *Un travail et des conditions*
HEMEN ERABAKI *de vie dignes!*



Euskal Herrian lan egin, erabaki eta bizi!

**Ipar Euskal Herriarentzako egitura sozioekonomikoa
eta langileentzako negoziazio kolektiborako guneak**



2024ko Iraila

1974 - 2024 • ZABALTZEN



www.lab.eus
/langileen-alde-hermen-erabaki/

Sar hitza

2022ko Biltzar Nagusian, estrategia independentista eta eraldatzailea bultzatzen jarraitzeko konpromisoa berritu zuen LABek. Ahal dugun guztia egingo dugu Euskal Herriko (EH) langileei lan eta bizi baldintza duinak bermatzeko, lan harremanak eta babes soziala finkatuko dituen egitura sozioekonomiko propioa sortzeko.

LABek erronka hori onartu du. Baldintzek uzten duten heinean, LABek lehentasuna emanen dio Euskal Herriaren burujabetzaren alde lan egiten duten eragileen arteko elkarlanari.

Ipar Euskal Herriko (IEH) mugimendu abertzale ezkertiarrek abiatu duen gogoeta estrategikoa beharrezkoa eta positiboa izan da. Euskal Hirigune Elkargoaren (EHE) sortzea aitzina pausu bat da. Orain helburua gero eta autonomia gehiago lortzea da. Horrek langileen aldarrikapenak erdigunean ezartzen ditu eta IEH mailako negoziazio kolektiborako gune propioen aldeko eskakizuna berresteko aukera ematen digu, langileek herrian lan egin, erabaki eta bizi ahal izan dezaten.

2012an, LABek lehen aldiz argitaratu zuen *Bertan Erabaki* proposamen zehatza, IEHko langileen lan eta bizi baldintzak hobetzea helburu zuena. Geroztik, sindikatuak eta bere militanteek zabaldu dute, eta ideia horrek bere bidea ere egin du.

Hamar urte baino gehiago geroago, egoera orokorra eta Euskal Herrikoa aldatu egin dira. Gure aldarrikapenek indarrean jarraitzen badute, berresteko eta testuinguru berrian birkokatzeko garaia da.

Egoera sozioekonomikoak, Espainiako eta Frantziako estatuak inposatzen dizkiguten lege eta neurriek eta EHren testuinguru politiko-instituzional berriak baieztatzen dute ezinbestekoa dela tresna egituratzaileak eta erabakiak hartzeko instantziak ezartzea, datozen urteetan EHko langileen interesak babestea eta defendatzea helburu izango dutenak.

Klase sindikatu abertzale eta borrokalari gisa, gure proiektu sindikala IEHko langileek pairatzen duten egoera kritikoaren mailan egon behar da. Langile horien intereserako, elkarlana bultzatu behar dugu, eta borroken bateratzea bultzatu, indar harreman eraginkor baten baldintzak sortzeko. Zentzu horretan, ezinbestekoa da gure herriarentzat proiektu oso bat berriz zehaztea eta gure herriaren askapen sozial eta nazionala lortzeko urrats ezberdinak identifikatzea.

1. Egoeraren azterketa

1.1 Testuinguru orokorra

Kapitala vs bizitza

Sistema kapitalistak sortutako krisi sozial eta ekologikoak ez dira berriak. Notatze agentzien bidez bereziki, kapitala nagusitu da, erabaki guztien erdigunean dago, estatuaren gaizkidesun aktiboarekin. Estatuak kapitalismoaren eskakizunei osoki erantzuten diete; ekonomia liberala eta politika instituzionala elkarri lotuta daude Europako Batasunaren baitan.

Politika neoliberalak biderkatu egin dira Mendebaldeko estatuetan, eta, horrela, zalantzan jarri dira babes soziala eta ongizate estatua. Estatu horiek berek, diru publikoarekin, beren akziodunen artean dibidenduak urririk banatzen segitzen duten banku eta enpresa handiak laguntzen dituzte. Krisi suntsitzaile hauek herrien eta langileen eskubideak murrizten dituzte.

Sistema kapitalistak bizitza suntsitzen du. Gutien batek planeta sakrifikatzen du gero eta aberastasun gehiago bereganatzeko eta metatzeko, jende gehien eta ingurumenaren kaltetan. Kapitalismoak ingurumenean dituen ondorio kaltegarriak gaixotzen eta hiltzen gaituzte: aldaketa klimatikoa, biodibertsitatearen galera, basoen mozketa, ozono geruzaren suntsiketa, airearen, uraren eta luraren kutsadura...

Kapitalismoaren indarkeriari faxismoaren gorakada gehitu behar zaio. Zabaltzen ari da: eskuin muturreko hautagaiek hauteskundeak irabazten dituzte herrialde askotan; beren ideiak arrunt bilakatzen dira; lege libertizida eta xenofoboak aldarrikatzen dira; ekintza bortitzera lerratzeak emendatzen dira, arrazaren, erlijioaren eta LGTBIQ+ kolektiboaren aurkako gorrotoak eraginda.

Frantziako Estatua

Europaren eskakizunak zalantzan jarri beharrean, Frantziako Estatuak argiki jarraitzen ditu. Azken hamar-kadetako erreforma antisozialek desberdintasunak areagotu dituzte. Osasunean eta jendartearen ondorioak eragiten dituen pentsioen azken erreformak beste bi urtez lan egitera kondenatzen gaitu, batez ere emazteak.

Langileen egoera larria da. Hurrenez hurreneko gobernuek gure bizitzak prekarizatzen dituzte: etxebizitza duina lortzeko gero eta zailtasun handiagoa; elikadura eta hilekoaren prekaritatea; artatua izateko eta zerbitzu publikoak oro har eskuratzeko aukera murriztea; egiturazko langabezia; kontratuen eta lan-baldintzen prekarizazioa, batez ere emazteek nagusiki betetzen dituzten lanbideetan; lan-erritmoen areagotzea; bizitzeko boterearen murrizketa; enpresa eta kolektibitateetan eskubide sindikalen urritzea; paperik gabeko langileen ustiaketa; plataformetako langileen iruzurrezko egoera... Gainera, lanpostuen prekarizazioa lanaren antolaketa indibidualizatzearekin batera gertatu da, eta horrek langileei bakartasun handiagoa dakarkie.

Sindikatzeko tasa txikia baldin bada ere, sindikalismoaren funtzio soziopolitikoak onartu da gizartean eta langileen artean, baina, hala ere, aitortza handiagoa izan behar du. Nagusi handien ondoz ondoko gobernu aliatuek murriztu egin dituzte langileen eskubideak eta langileen ordezkariak instantzien eskumenak, lan sindikala zailduz. Hala ere, egiazko kontraboterea da, langileak antolatzeko eta borrokatzeko tresna, gobernuaren, patronalaren eta faxismoaren aurrean.

Politikoki, ezkerreko alderdi frantsesek ez dute hausturazko alternatiba sinesgarririk proposatzen. Aldi berrean, faxismoak, alderdi eta talde ezberdinen bidez, leku nabarmena du eztabaida publikoan, bereziki frantses hedabide handien jabe dirudunei esker. Eskuin muturreko diskurtsoak banalizatzen jarraitzen dute, eta haren ideologia burges, atzerakoi eta antisozialak langileen zati bat liluratzen du. Frantziako Estatuak krisi demokratiko garrantzitsua bizi du, eta bere sistema parlamentario eta ultrazentralizatuak ez du erantzunik ekartzen langileen interes eta beharrei.

Frantziako Estatuak gure herrien autodeterminazio eskubidea urratzen du. Hala ere, Frantziaren menpean diren herriek eztabaida instituzional dinamikoa ezagutzen dute eta Frantziako Estatuarekin negoziaketak eraman dituzte eskumen gehiago eskuratzeko. Bilakaera instituzional eta askapen prozesu bakoitza berezia da. Politikoki interes handiz jarraitzen ditugu, burujabetza osorako gure prozesua argitzen dutelako. Sindikatuei dagokienez, nazioarteko elkartasuna eraikitzen jarraitu behar dugu: SLB (Breizh), USTKE (Kanaky), STC (Corsica), UGTG (Gwadeloup), UGTM (Martinik), UTG (Lagwiyan)...

1.2 Euskal Herriko egoera

Euskal Herriko Garapen Kontseilua

EHk globalizazioari eta mundializazioari buru egiten die, alternatiba asko sortuz. Hamarkadetan zehar tokiko eta herriko tresna eta egitura soziopolitikoak eraiki ditugu: euskararen babesaren alde borrokatzen gara; giza neurriko laborantza eredu baten atxikitzearen alde; lurren, kulturaren eta kirolaren zaintze eta transmisioaren alde; eta emakumeen eskubideen, lanaren eta etxebizitzaren alde.

IEHn sortu zenetik, LABek Euskal Herriko Garapen Kontseiluan (EHGK) eta *Pays Basque 2010* eta *Pays Basque 2020* proiektuetan parte hartu du. Azken horiei esker, 2017an Euskal Hirigune Elkargoa (EHE) sortu zen. EHGK-k jendarte zibil antolatua aktibatze lanean segitu behar du, eta IEHrentzako proposamen berritzaile eta egituratzaileen indarra izan behar du, hainbat ikuspuntutatik: soziala, ekonomikoa, ekologikoa, demokratikoa... Parte hartzen dugun *Pays Basque 2040 - Iparralde 2040* proiektu berriaren erronka hori da.

Gai instituzionalaz harago, urte hauetan guzietan LABek lurralde mailako negoziazio kolektiboen gune baten aldarrikapena eraman du.

Euskal Hirigune Elkargoa

IEHk aitortza instituzionala lortu zuen 2017an, EHE eratuz. Lehen urrats hori lurralde mailako indar politiko zabalen metaketari eta gizarte mailako adostasunari esker eman zen. Gure herriarentzako urrats horrek bultzatzen gaitu bide horretan jarraitzea eta tresna egituratzaileak eta erabakiak hartzeko instantziak aldarrikatzea.

Hala eta guztiz ere, Frantziako Estatuak baztertu egin du Estatutu Bereziko Lurralde Kolektibitatearen hasierako aldarrikapena, NOTRe Legearen lurralde birzatiketa egitarauan sartzen den erakunde apalago baten mesedetan. EHEren eskumen kolektibo instituzionalen eskasiak eta elkargoko hautetsien hautatzeko moldeak tresna horren mugak erakusten dituzte. Barnealdearen eta kostaldearen arteko desorekak bere horretan dirau. Politika ekonomiko eta sozialak IEHTik kanpo erabakitzen dira beti, eta urrutiko interes, behar eta errealitateei erantzuten diete.

EHEk bere langileen ordezkaritza instantzia propioa, Lurraldeko Batzorde Soziala (CST), sortu du bere langileen lan baldintza, osasun, higiene eta segurtasunarekin zerikusia duten gai kolektiboak jorratzeko. Baina bere funtzionarioen karrera indibidualen kudeaketaz eta jarraipenaz ez da jabetu. Administrazio Batzorde Paritarioak (CAP) Paueko Kudeaketa Zentroak (CDG 64) kudeatzen ditu beti, langileen ibilibideen bilakaerari buruzko erabakiguneak urrunduz.

EHEk Euskal Herriko behatoki ekonomiko baten sortzea ahalbidetu du, baina berresten dugu ez dela aski. Behatoki sozioekonomiko bat behar dugu, erakunde sindikal guziak bilduko dituen, lurraldeko errealitatea eta behar sozialak ebaluatzeko.

Aldi berean, EHEk EHGKren antolaketa berri bat bultzatu du, Euskal Herriko Elkarrizketa Sozialerako Batzordearen (DSPB) ahalduntzea ahalbidetu duena. Bilakaera horri esker, 2017tik goiti, Tokiko Batzorde Parekide bat (CPL) sor genezakeen IEHn, baina langile eta nagusi sindikatu gehienak ez ziren urratsa emateko prest. Beraz, DSPB elkarrizketarako gune bat da, baina ez negoziatorakoa.

2017ra arte batzordean egon diren Medefek eta CGTk nahiago izan dute bertatik atera, eta, horrela, edozein bilakaera saihestu lurralde-negoziatorako gune baterantz, nahiz eta hasieratik DSPBren estatutuetan helburu gisa finkatu zen. 2017az geroztik, DSPBk abantaila batzuk eskaintzen dizkie Enpresa Oso Tikiatiko (TPE) langileei, enpresa handietan baizik ez direnak, hala nola, obra sozial eta kulturaletan.

IEH mailako negoziazio gune baten eraikitzea berriz abiatu behar da datozen hilabeteetan, langile eta sindikatu nagusi ezberdinak berriz akuilatuz.

Negoiazio guneak

Gaur egun, IEH egitura sozial gisa ez onartzeak klase harremanak are gehiago zailtzen ditu. Negoiazio kolektibo guneak IEHTik kanpo daude, borroka sindikalaren eremua murriztuz.

Frantziako Gobernuak indarrean sartutako erreformek nabarmen eragiten diote IEHri, eta ez diete erantzuten ez lurraldearen ez langileen beharrei. Gure lurraldetik urrun eta gure beharrak aintzat hartu gabe negoziatutako hitzarmen kolektiboak demokrazia sozialaren printzipioaren aurka doaz. Are ohargarriagoa da IEHko enpresa gehienak enpresa oso tikiak direla kontuan hartzen badugu, non ordezkaritza sindikala mugatua den. Sindikatu sailen sortzea zaila da, eta enpresa hitzarmenen negoziatzea kasik ezinezkoa da. Langileen lan eta bizi baldintzei eragiten dieten erabakiak oso urrun geratzen dira. Beraz, sindikatuen egiazko baliagarritasuna ez dute ikusten.

Frantziako Estatuaren krisi demokratikoaren aurrean, erabakiak hartzeko instantziak herritarrengana hurbiltzea demokrazia indartzea ere bada, langileei boterea ematea.

Gainditu beharreko erronka sindikatu bakoitzaren ordezkaritza neurtzea da, eta negoziazio kolektiboa IEH mailan kokatzea. Beraz, IEH mailan negoziazio kolektibo eta parekiderako gune bat beharrezkoa da gure lan baldintzen hobetzeko. IEHren mailan ere Prud'hommes instantzia bakarra ezarri beharko litzateke.

Lurraldeko funtzio publikoan, IEHko 50 langile azpiko 144 herri eta 30 bat erakunde publikoetako langileek ez dute ordezkaritza sindikalik bertan, eta haien lan baldintzak Pauen kudeatzen dira, Kudeaketa Zentroan. IEHko lurraldeko agenteen errealitateari erantzuten dioten negoziazio gune kolektiboak, parekideak eta tokikoak ezinbestekoak dira.

Hego Euskal Herria

Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroko Foru Erkidegoak autonomia estatusa dute gobernu bereziki. EHko bi lurralde hauek entitate politiko eta sozialak dira, eta eskala horretan kalkulatu da sindikatuen

ordezkaritza ere. Espainiako estatu mailako hitzarmen kolektiboak baino mesedegarriagoak diren hitzarmen kolektiboak eta lurralde adar hitzarmenak daude, beraz, bi erakunde horietan.

Sindikatuaren eta nagusien arteko botere oreka, estatu edo lantoki mailan ez ezik, autonomia mailan ere badago. Negoziazio kolektiboko espazioak langileengandik hurbilago daude, eta horrek fronte sindikal eraginkor baten eraikuntza sustatzen du.

Negoziazio-espazioak elkartzeak langileentzako botere oreka onuragarriagoa dakar. Horrek, beraz, haien aktibazioa errazten du.

Horrela, Hego Euskal Herriaren kasuan, lan erregulazioa Espainiako Estatuaren eskumenekoa bada ere, negoziazio kolektiborako marko propio bat egoteak langileen antolakuntzarako eta borrokarako espazio bat ahalbidetzen du. Horri esker, lurraldeko lansariak eta lan baldintzak hobekitu dira.

2. Perspektibak eta erronkak

2.1 Maila sozioekonomikoan

Sindikatuentzat lehentasunezkoa da langileen eskubideen alde borrokatzea eta neurri onuragarriagoak proposatzea. Azken urteotan gure bizi baldintzen prekaritatea jasan izan dugu IEHko langileok. Lansariak jaisten ari dira, zerbitzu publikoak ahultzen ari dira, zaintzarekin lotutako zereginak ez dira aitortzen eta modu desorekatuan banatzen dira, etxebizitza eskuratzeko eskubidea arazoa da herritar ainitzentzat.

Ez da kapitala erdigunean jarri behar dena, bizitza baizik. Eredu ekonomiko eta sozial berri baten aldeko apustua egiten ari gara. Horretarako, LABek uste du lantokika eta sektoreka eramaten ditugun borrokez harago, beharrezkoa dela aldarrikapen orokorrak egitea eta haien aldeko indarrak biltzea.

Guk aldarrikatzen dugu:

1. Oinarrizko beharrak betetzeko eta bizi sozialan parte hartzea bermatzeko gutienezko lansari duina.
2. Lanaldi murrizketa: 30 orduko lanastea: zaintzarekin lotutako zereginak banatzeko, lanpostuak partekatze eta trantsizio ekologiko eta digitalarekin lotutako ondorioei aurre egiteko.
3. Gure eskubideak murrizten dituzten erreformak ukatzea
 - > Pentsioen azken erreforma indargabetzea
 - > Langabezia aseguruaren erreforma bertan behera uztea
4. Guztientzako zerbitzu publiko eraginkorak eta eskuragarriak:
 - > Osasun eta jendarte laguntza
 - > Zaintza
 - > Etxebizitza
 - > Garraioa
 - > Hezkuntza

2.2 Maila politiko eta instituzionalean

Eskumenak handitu

LAB klase sindikatu independentista da. Euskal Errepublika, sozialista, feminista eta euskaldun baten eraikuntza dugu helburu. Espazio sozioekonomiko garbi bat defendatzen dugu lan harremanak eta babes soziala arautzeko. Hemen erabakitze eskubidea aldarrikatzen dugu lan legediaren, gizarte segurantzaren eta gure bizi baldintzen inguruan.

Hau ez da egun batetik bestera eraikiko, baina trantsizio prozesu batetik igaroko da. Pausoz pauso aurrera egin behar dugu eta IEHrentzat estatus juridiko-politiko berri bat lortzeko garaia iritsi dela uste dugu.

Langileen aldeko politikak bultzatzeko, eraldaketa sozialean aurrera egiteko, aldaketa politikoak abiatu behar ditugu.

EHEren sorrera EHren ibilbide instituzionalean urrats garrantzitsua bada ere, gure lurraldeak urrats berri bat eman eta gaitasun handiagoz hornitu behar du.

Ildo horretatik doa Bagira mugimenduak 2024ko Aberri Egunean aurkeztutako bide orria. Protagonista politiko, sozial eta sindikal guztiei dei egiten die une hau aprobetxa dezaten aldarrikapen instituzionala berriro aktibatzeke eta, horrela Euskal Herri burujabearen eraikuntzaren hurrengo fasera pasatzeko. Garrantzitsua da, beraz, zatiketak gainditzea eta beharrezko indarrak biltzea gure burujabetza politiko, ekonomiko, material eta sozialaren mesedetan.

Zentzu horretan, gaitasun instituzional kolektiboak areagotzea ezinbestekoa da; horien artean, eskumen soziala. Gaur egun, Frantziako Estatuak eskua dauka, batez ere pobrezia-aren planarekin edo jarduera ekonomikoaren bidez integratzeko planarekin, eta Departamentuak, haurren eta familien babesarekin edo RSA onurarekin.

Ezinbestekoa da eskumena IEHra bideratzea, honen aurrekontua kudeatzeko (gaur egun Pirinio Atlantikoetako Departamenduko handiena), gure lurraldea maila sozialeko eta elkartasunezko gaitetan gune berritzaile eta aurrerakoa bihurtzeko.

Horrek erakunde horri oinarri demokratiko sendoagoa emango lioke, EHEko hautetsiak hautatzeko sufragio unibertsalaren bidezko hauteskundeak ezarriz

2.3 Maila sindikalean

Intersindikala

2000. urtean IEHn sindikatua sortu zenetik, LABek beti egin du borrokaren batuketaren aldeko indarrak biltzearen alde: Oldartu, El Khomri Lan Legearen aurkako kolektiboa, Maiatzaren 1 unitarioa, harrera juridiko unitarioak, Apirilaren 28 unitarioa (Laneko Segurtasun eta Osasunaren Mundu Eguna), Herrian Bizi plataforma...

2002an, LAB lehen aldiz Prud'homes hauteskundeetan aurkeztu zen eta eserleku bat lortu zuen. Gero, 2008an 4 eserleku lortu zituen, eta, azkenik, 2015an lehendakaritza ukan zuen. Hortik aurrera beste sindikatuarekin egiazko harremanak sortu genituen. "Sozialdemokrazia" deritzon erreformatik, Prud'homes-epaileak jada ez dira zuzenean hautatzen, baizik eta sindikatuak izendatzen dituzte beren departamenduetako ordezkariaren arabera, eta horrek mekanikoki bazterten du gurea bezalako sindikatu bat.

Sortu ginenetik LAB borroka guztietan egon da. Beharrezkoa den guztietan, langileen aldeko botere oreka sendotzearen alde egiten dugu enpresaburu handien edo hainbat gobernuren aurka. Gure afiliatuek eta hurbilekoek azken 25 urteotan egindako lanari esker, ezinbesteko sindikatu bihurtu gara. Zenbait erakunde sindikalek oraindik uko egiten diote IEH mailan eztabaida eta negoziatziorako tarteak irekitzeari. Departamendu, eskualde edo estatu arteko erakunde sindikalen alde egiten jarraitzen dute. Sindikatu batzuek, hala ere, tokian tokiko ekintza-akordioak onartzen badituzte ere, beste batzuentzat borondate politiko kontua da IEH eskalan eztabaidatu, erabaki edo jardun nahi ez izatea.

Orokorrean, sindikatu batzuegandik oraindik pairatzen ditugun erasoen gainetik, lan kolektiboarekin jarraitzeko asmoa dugu.

LABen iduriko, kolektiboetan eta mugimendu sozialean sortutako loturak emankorrak izanen dira eta indar sindikalen batasuna ahalbidetuko dute, langileek irabazitako eskubideak zalantzan jartzeko testuinguruan.

Langile mugimendua indartzea ezinbestekoa da, enpresaz enpresa eta kolektibitatez kolektibitate antolatuz, nagusien aurkako botere oreka areagotzeko erreforma antisozial guztiei buru egiteko eta aberastasunen partekatzean eta justizia sozialean oinarritutako beste gizarte eredu bat eraikitzeko.

3. Beharrezko tresna zehatzak

HEMEN ERABAKITZEKO, IPAR EUSKAL HERRIAN OINARRIZKO 3 EGITURA:

> Behatoki sozioekonomiko iraunkorra

IEH espazio sozioekonomiko gisa aitortuko da egitura hori ezartzean. Horrela, dagoeneko ditugun datuak zentralizatuko lituzkeen tresna horri esker, IEHren diagnostiko sozioekonomiko zehatza ukango genuke. Horrek gure beharrak asetzen dituzten politika sozialak zehazten lagunduko luke. Eztabaidarako gune bat izango da, non jendarte zibilak zein lurraldeko hainbat gizarte protagonistek, hala nola sindikatuek, bere lekua izango duten.

> Sektore pribatuko langileentzako negoziazio kolektiborako gune espezifikoak, hala nola, Tokiko Batzorde Parekidea (CPL)

Espazio horrek aukera emango luke:

- > IEHn dagoen sindikatu bakoitzaren ordezkariak neurtzeko
- > Tokiko hitzarmen kolektiboak negoziatzeko hitzarmen kolektibo "nazionalak" hobetuz
- > Eskubide berriak lortzeko
- > Enpresa txikietako langileek ordezkariak ukateko

> Lurraldeko agenteentzako negoziazio kolektiborako gune espezifikoak, hala nola, Herriateko Lurralde Batzorde Soziala (CSTI)

Espazio horrek aukera emango luke:

- > IEHn dagoen sindikatu bakoitzaren ordezkariak neurtzea;
- > Elkarrizketa sozialeko organorik ez duten 50 agente baino guttiagoko kolektibitateetako langileen lan baldintzak negoziatzeko.

Azken urteotako erabaki politiko eta ekonomiko guztiak kapitalaren intereserako hartu dira, langileen kaltetan.

Negoiazio organoak elkarrengana hurbiltzeko eta gure bizitza erabakiak hartzeko erdigunean jartzeko garaia da.

LABek aldarrikapen hauek alderdi politikoei, sindikatuei eta jendarte zibileko protagonistei, bereziki IEHGKri eta DSPBri, eramateko konpromisoa hartu du.

4. Bukatzeko

Ipar Euskal Herria instituzionalki egituratzen bada ere, gure lurraldeak oraindik ez du aitortza sozialik izango, eta hori langileen burujabetzeari benetako oztopoa da. *Euskal Herrian lan, erabaki eta bizi, langileon alde, Hemen Erabaki* aldarrikapen zabala egiten jarraitu behar du LABek, eta hori errealitate konkretu bihurtzeko bitartekoak ematen jarraitu behar du.

Burujabetza sozialaren gaiak inoiz ez du lortu hainbeste adostasun jendarte zibilean. Mugimendu soziopolitikoak konpromisoa hartu behar du Frantziako legediak ahalbidetzen duen negoziazio kolektiboko erabakiguneak biltzeko aldarrikapenean laguntzeko. Borondate politikoa eta gizarte mugimenduaren presioa ezinbesteko baldintzak dira horiek gauzatzeko.


Horretarako, LABek honako konpromisoa hartzen du:

Lurralde erreforma prozesuan eta IEHren bilakaera instituzionalaren aldeko dinamikan inplikatu.

Egoera sozioekonomikoa aurkeztu eta IEHren alternatiba posibleak zabaldu langile, sindikatu eta nagusi guztiei, baita jendarte zibilari ere.

EHko lurralde eta eragile sozioekonomiko ezberdinen arteko lankidetzak, elkartasun eta ekintza dinamika bat lagundu.

LABek, sindikatu nazional eta abertzale gisa, gizarte eta nazio askapenerako prozesu baten alde indar guztiak ematen ditu.




1974 - 2024 • ZABALTZEN

langileen alde

HEMEN ERABAKI

*Un travail et des conditions
de vie dignes!*



Euskal Herrian lan egin, erabaki eta bizi!

Ipar Euskal Herriarentzako egitura sozioekonomikoa eta langileentzako negoziazio kolektiborako guneak



www.lab.eus
/langileon-alde-hemen-erabaki/

LABek Ipar Euskal Herri mailako Tokiko Batzorde Parekide baten sortzea aldarrikatzen du, pribatuko langileentzat.

Zer da?

IEH mailan erakundeentzako entzunaldiaren arabera hautatutako sindikatu eta nagusien ordezkari osaturiko istantzia parekidea.

Zein dira abantailak?

- ☞ Istantzia bat sortzea, lansariei (soldata, lanaldia) eta lan baldintzei buruzko aurrerapenak kolektiboki negoziatzeko.
- ⌘ IEH lurralde-hitzarmen eta akordio kolektiboak negoziatzeko tokia bilakatzea.
- 🏢 Enpresa Oso Txikietako (TPE) langileentzat ordezkariak hautatzea.

LABek Ipar Euskal Herri mailako Herriarteko Lurralde Batzorde Sozial baten sortzea aldarrikatzen du, Lurralde Funtzio Publikoko Lurraldeko agenteentzat.

Zer da?

Istantzia parekide bat da, kolektibitate eta erakunde publikoetako enplegatzailez eta langile ordezkari osatua.

Zein dira abantailak?

- 🏢 50 langile baino guttiagoko IEHko herriko etxe eta erakunde publikoetako agenteentzat negoziazio kolektiborako istantzia bat sortzea.
- ⌘ Ordezkariak hautatzea, lansariei (soldata, lanaldia) eta lan baldintzei buruzko aurrerapenak kolektiboki negoziatzeko.
- 🏢 IEHko lurralde agenteen lan baldintzak harmonizatzea eta hobetzea.


Zer da LAB sindikatua?

Langileen defentsa eta borrokarako tresna bat gara. Euskal Herri osoan antolatutako sindikatu bakarra, independentista, sozialista, feminista, euskalduna, antirrazista, ekologista eta internazionalista.

Aberastasunaren, lanaren eta zaintzaren banaketa justuaren alde borrokatzen gara.

Gauzak aldatzeko modurik onena tokian toki erabakitzea da, antolatzea eta borrokatzea!

LABekin antolatu eta afiliatu!



✕ @LAB_ieh

📘 LABSindikatuIparEH

🌐 <https://ieh.lab.eus/>

✉ baiona@lab.eus




langileen alde *Un travail et des conditions*
HEMEN ERABAKI *de vie dignes!*



Travailler, décider et vivre en Euskal Herria!

**Une structure socioeconomique et un espace de
negociations collectives pour les travailleuses et
travailleurs d'Ipar Euskal Herria**



Septembre 2024

1974 - 2024 • ZABALTZEN



www.lab.eus
/langileen-alde-hemen-erabaki/

Introduction

Lors de l'Assemblée Générale de 2022, LAB a renouvelé son engagement à poursuivre l'impulsion d'une stratégie indépendantiste et transformatrice. Nous mettrons tout en œuvre pour que des conditions de travail et de vie dignes soient assurées aux travailleurs et aux travailleuses d'Euskal Herria [EH – Pays Basque], pour la création d'une structure socioéconomique propre afin d'encadrer les relations de travail et de protection sociale.

LAB relève ce défi. Dès que les conditions le permettent, nous prioriserons le travail en commun entre acteur-trices qui œuvrent en faveur de la souveraineté sociale en Euskal Herria.

La réflexion stratégique qui a été initiée par le mouvement abertzale de gauche d'Ipar Euskal Herria [IEH - Pays Basque Nord] s'est avérée nécessaire et positive. La création de la Communauté d'Agglomération Pays Basque (CAPB) est un pas en avant. L'objectif à présent est d'obtenir de plus en plus d'autonomie. Cela donne une centralité aux revendications des travailleur-euses et nous permet de réaffirmer l'exigence en faveur d'espaces propres de négociations collectives à l'échelle d'IEH, pour que les travailleur-euses puissent travailler, décider et vivre au Pays.

En 2012, LAB publiait pour la première fois *Bertan Erabaki*. Une proposition concrète et ambitieuse pour améliorer les conditions de travail et de vie des travailleur-euses d'IEH. Depuis, le syndicat et ses militant-es l'ont diffusé et cette idée a même fait son chemin chez les perplexes de la première heure.

Plus de 10 ans après, la situation globale et celle d'Euskal Herria ont évolué. Si nos revendications restent d'actualité, il est temps de les réaffirmer et de les recontextualiser.

La situation socioéconomique, les lois et mesures qui nous sont imposées par les Etats espagnol et français ainsi que le nouveau contexte politico-institutionnel en EH confirment que la mise en place d'outils structurants et d'instances décisionnaires sont indispensables. Ils auront comme objectifs de soutenir et défendre les intérêts des travailleur-euses d'EH dans les années à venir.

En tant que syndicat abertzale, de classe et de lutte, notre projet syndical doit être à la hauteur de la situation critique que connaissent les travailleur-euses d'IEH. Dans l'intérêt de ces mêmes travailleur-euses, nous devons favoriser le travail en commun et encourager la convergence des luttes pour créer les conditions d'un rapport de force efficace. En ce sens, il est indispensable de redéfinir un projet global pour notre Pays et d'identifier les différentes étapes pour atteindre la libération sociale et nationale de notre Peuple.

1. Analyse de la situation

1.1 Contexte général

Le Capital vs la Vie

Les crises sociales et écologiques engendrées par le système capitaliste ne sont pas nouvelles. Par le biais des agences de notation notamment, le Capital s'est imposé, il est au cœur de toutes les prises de décisions, avec la complicité active des Etats. Face aux exigences du capitalisme, les Etats ont une position claire d'alignement ; économie libérale et politique institutionnelle sont intrinsèquement liées au sein de l'Union européenne.

